

2. NI AL NAIZ ZURE NI? NORTASUNA ERAKITZERE TRESNARIK EZ DAUKAT, NIREGAN ORAINDIKAN SINISTEN EZ BAIT DUT ETA, GUZTI HAU TAMALGARRIA BIHURTZEKO GIZAKIA IZATEARI UKO EGIN AL DIOT? NI AL NAIZ...ZURE NI? NIRE BILA IBILI NAIZ ZULO BELTZ BATETAN BIRAKA NAHASTURIK ETA JOTA NIRE ONERA ITZULITA AUSARDIAK EZ DAUKA ITXURA ONIK, KOLDAR BAT NAIZELAKOTAN BELDURTURIK NABIL ETA NI AL NAIZ...ZURE NI? AMODIOA EZ DA JOLASA EGUZKIAREN ITZULERA BEZALA EZIN AHAZTURIKO UNEAK NAUKATE TORTURA MODUAN ZENTZUGABETASUNEZ IBILITAKOAN DAMUTUTAKO ONDORIO LATZAK JOLASAREN EZJAKINDURIAK SORTUTAKO ZAURI MINGARRIAK ERABILITAKO JOKAERA ITSUAK ERREALITATEA FIKZIOAN BIHURTU NAHIEN EBAZPIDEAREN BIDEA. AURKITU EZINEAN GALDUTZAT IKUSTEN DUT, NIRE ETORKIZUNA BILUTSIK ETA BABESIK GABE NAGO NORTASUNA BERRISKURATU NAHIEAN. ZERTAN BIHURTU NAIZ!!ZERTAN BIHURTU NAIZ!!

2.ITXURA FALTSUAK DENOK JAKIN DUGU EGIAREN ORDUAN DENA GEZURRA DELA, BAINA NOLA ESAN BEHAR DA GUK ESATEN DUGUNA, EZ DUGULA ESATEN, ESANAK ESAN, ESANAK ESANAK DAUDE BAINA ESAN BEHARREKOAK GUTXITAN ESATEN DIRA, ZORITXARREZ ETA NIK IRRATI HONTATIK ESATEN DIZUET ENTZUTEKO KANTA HAU...EZ DA HITZ BERRIRIK, GAUZA HORI, EZ DA HORI, IKUSI KANPOTIK, AZTERTU BARRUNDIK..ITXURA FALTSUAK!! ITXUREN MUNDUAN,EGIA GALDU DA, ITXURA FALTSUAK!! OSO ONDO, OSO ONDO, LEHEN ASMATU DUZUTE ZERTAN ARI NINTZEN ITXURAK, ITXURAK DIRA BAI GIZARTE HONETAN ERREGE, ESANAK, IZATEAK, BARREAK, NEGARRAK DENAK DIRA ITXURAK, FALTSUAK NOSKI BAINA ZER ESANGO DIZUT NIK KANTA HONEK EZ BADIZU ESATEN...ITXURA FALTSUEK, GIZARTEA HIL DUTE NOIZ ARTE, HIL DUTE? NOIZ ARTE?, DESITXURATU ARTE!! ITXURA FALTSUAK!! ITXUREN MUNDUAN,EGIA GALDU DA,ITXURA AHALTSUAK,ITXURA FALTSUAK!!

3.HITZ HUTSAK EZ BELDURTU,EZ BELDURTU ZURE HERIOTZA NAIZ, PENTSAMENDUAREN BUKAERA BIZITZAREKIN LOTURA, GEZUR BATEAN BIZI GARA SINISTEN EZ DUDANEAN, EZEREZAREN GIDARIAK DIREN HITZ HUTSAK BAIT DIRA, HITZ HUTSAK BAIT DIRA!.ARRAZOIAREN ERREALITATEAN GORPUTZA GILTZAPETURIK, EROTU NAHI DUT, EROTU NAHI DUT TA MUNDU ERO HONTATIK ATERA, ERORKETAREN BUKAERAN DAGO BIZITZAREN HASIERA GIZAKIAREN DESAGERKETA NATURAREN GARAIPENA, NATURAREN GARAIPENA! HUTSIK DAUDEN HITZAK EXISTITZEN EZ DIREN BURMUINETAN.EZ DUT INOIZ ONARTU ERREALITATEARI UKO EGITEN DION JENDEA, ETA GAUR ERA BEREAN KONTURATZEN NAIZ EGIAREN AURREAN GUZTIZ ITSUTURIK NAGOLA. MAULATURIK NAGO BAINA EZ HARTU SERIO ESATEN DIZUDANA EGIA EZ ESATEKO BEZAIN JAKINTSUA BAIT NAIZ.HUTSIK DAUDEN HITZAK DAUDEN, HITZ HUTSAK!!

4.ZURRUNBILO EZ DUT NERE IZARRA AURKITZEN, EZ DAUKAT NERE BURUAREN BERRIRIK, EZ NAIZ ZUTITUKO EGUZKI EKAITZAN, EZ NAIZ AMILDUKO AMAIGABEKO AMAIERAN.ARGIA GORROTO DUT! DENBORA GORROTO DUT! ARGIA ETA DENBORA BETIRAKO GORROTATUKO DITUT! HODEI ARTEAN GALTZEKO AUKERA, EGUZKI IZPIETATIK IHESEAN, TIPULAREN UHINAK MURTXIKATUZ, ARGI TANTA ZIKINPEAN. ARGIA GORROTO DUT. DENBORA GORROTO DUT! ARGIA ETA DENBORA BETIRAKO GORROTATUKO DITUT! GAUR ELIKATZEN DUZUN ZURRUNBILOAK BIHAR IRENTSIKO ZAITU!

5.SEXU MUGARIK EZ KE ARTEAN EZ DUTE IKUSTEN, EZJAKINTASUNAK ITOTZEN DITU, ZERTAZ EGIN BEHAR NAIZ DAMUTU MAITASUNA EZ BADUGU BERDIN ULERTU? HURBILTZEA EZ ZAIZUE KOMENI, PIZTI GAIXOENA BAIT NAIZ NI, ZERGAITIK BARRE EGITEN DIDATE, NIRE MUNDUA EZ BADUTE ONARTZEN? SEXU, MUGARIK EZ! ELIZETAKO ATE AURREAN PENTSAMENDU LATZAK SORTZEN DIRA, NORBERA GUSTORA SENTITZEAK EZ DU ULERTZEN ARRAZA TA SEXUAZ,ESAIADAZU ZER DEN ZORIONA? ZER DA NORMALA IZATEA ARGI DUDAN GAUZA BAKARRA NOR EZ DA BERA, NAHI EZ DUEN BEGIETAN! SEXU, MUGARIK EZ!!

6. EZJAKINTASUNAREN KATEAK SUNTSITU PERTSONEN ARTEKO HARREMANETAN AZAL KOLOREAK BERE GARRANTZIA BA AL DU? GU DENON ARTEAN GORROTOA SORTZEKO AITZAKIA DELA ORAIN BADA KIGU, URTEETAN ZEHAR LUR HONETAN ZENBAIT LEKUTAKO LARRU TXURI ETA ARGIOK EZ AHAL ZINETEN HEGO AFRIKAN, AMERIKETAN BEZALA SENTITZEKO ASMOZ.ORAIN MILAKA AZAL DESBERDINEN HITZEK ESAN DIDATE HORREN ATZEAN ZER DAGON, EDONORK ARAZORIK GABE DIRU TRUK EDOZER GAUZA EGITEN DUELAKO, ORAINDIK ENTZUN DEZAKET JAINKOAREN IZENEAN ERABILI ZEN ARMAREN AHOTSA, ELURRA KOLOREKO AURPEGIEN BIHOTZETAN SENTITZEKO AHALMENARIK EZ AL ZEGOEN BA? AURPEGI ILUNEKO GARUN TXURIAREN PRESENTZIAK EZ DEZALA ZURE IZAERA ALDA,KOMUNIKABIDEEK SORTUTAKO IDOLOEK INTERES MATERIALAK SORTUAK BAIT DIRA,KALEAN AURKI ITZAZU ANAIEN ARTEAN BESTE MASAILA JARRIKO EZ DUEN JENDEA,BEGIETARA BEGIRA DATORKIZUNARI EZ DITZAN BERRIZ ERE ZURE LURRAK ZANPA, LURRAK LANTZEN DUENAK BERE IZERDIAREN JABE BAKARRA DA, ESKUEKIN SORTUTAKO BIZITZARI ETETEA, EZ DEZALA INORK GEHIAGO PENTSA GUZTIA ULERTZEKO GAI EZ DEN JENDEAN UGARIA BAIT DA.GIZONAREN KATERIK LATZENA ESPETXETAKOA BAINO BAKOITZAREN BURUAN DAGOLA ARGI DAGO, MUNDU TXURI BATEN NEURRIRA EGITEN DEN LEGEA AUTOSUNTSIKETARA DARAMATELA GIZONA.EZJAKINTASUNAREN KATEAK SUNTSITU!!

7.ERTZARIK GABEKO LAUKIAK ERTZARIK GABEKO LAUKIEK IDATZIA DUTE GEROA,BIDE BERBERA ZIRKULU BAT,IRUDIENA IRUDITU EZ DAITEKEN ZERBAIT,BERRITZEN EZ DEN JOERA BAT,LEHORTUTAKO IBAI BATETIK EDATEA DA.ERTZARIK GABEKO LAUKIEK IDATZIA DUTE IRAGANA,ETA ORAIN PAUSOAK NORA DOAZ,NORBAIT LAGUNDU,LEHERTZERA NOA.NON ZAUDE ORAIN BEHAR ZAITUT,HELMUGA LORTUKO EZ DUGUNAREN BELDURREZ.NON DAGO IRTEERA!!

8.EPILOGOA NOIZBAIT AHOA IREKITA EDUKIKO DUT ETA EZ DUT EZER ESANGO, NOIZBAIT BEGIAK IREKIAK EDUKIKO DITUT BAINA EZ DUT EZER IKUSIKO, NOIZBAIT IBILIKO NAIZ INORA JOAN GABE, NOIZBAIT NIRE NIAREN KONTZIENTZIA DESAGERTUKO DA, NOIZBAIT ,EXISTITU IZAN ZEN ERA BEREAN.ELURRA NIRE BELARRIETAN, SOINURIK EZ DUEN LUXUSKO EURIA DA, BAKARRIK HAIZEAK KONTATZEN DUENA ENTZUTEN DUT, ETA NOIZBEHINKA ERORTARAZTEN DIDAN EZEZAGUN BATEN AHOTSA AGERTU ETA OIHU EGIN, UNE BATEZ ITXUALDI BAT IZAN, DESIOAN ERRE ETA GERO OIHARTZUNA ENTZUN.METALEZKO BIHOTZAREN MENPE NAIZ PLASTIKOZKO LOREEI USALA BILATZEN DABILENA METALEZKO GARUNAREN MENPE NAIZ MARGORIK GABEKO IRUDIENGANDIK ATZIPETUTA IZAN DENA

9.LEGEA HIL INJUJIZIA BORROKATZEA, LEGEAREN AURKA DA JOKATZEA, GAIXORIK DAGO GIZARTEA, HOBE IZANGO DA LEGEA HILTZEA, NORK DEMONTRE EGIN ZUEN LEGEA, DENOK BERDINAK, HAU DA TXISTEA, EZ NAIZ EZER, EZ ZARA EZER, EZ GARA EZER LEGEAREN AURREAN, EZ! ETA NIK BADAKIT ZER EGIN: LEGEA HIL!! PAPERA BERDEA, BOTEREAREN JABE DA BOTERE BERDEA, LEGEGILEAREN JABE DA, LEGEGILE BERDEA, LEGE EGITEAREN JABE DA, LEGEA BERDEA BADA, GIZARTEA BELTZA DA, BAI!! ETA NIK BADAKIT ZER EGIN: LEGEA HIL!! ORAIN BAKARRIK AURKITZEN ZERA MUNDUKO KALEAN ETA ESAN, ZER IKUSTEN DUZU JENDEAREN BEGIETAN HAU ITXOITZEN BETI MAKURTUAK BIZI IZAN GERA ETA INORK EZ AL DU ULERTZEN ZERTAZ GAUDEN HIZKETAN! LEGEA BERDEA BADA, GIZARTEA BELTZA DA!!

10.URTSUA UDA (MIKEL LABOAREN BERTSIOA)